

Nola diozu?

Genero-ekitatean oinarritutako komunikaziorako gida



MUGARIK GABE

www.mugarikgabe.org

Nola diozu?

Genero-Ekitatean oinarritutako komunikaziorako gida

Aurkibidea	Orr.
1. Zergatik?	3
2. Zertarako?	4
3. Nola?	5
a. Hizkuntza	6
b. Irudiak	13
c. Edukiak	21
d. Metodologiak	26
4. Gaia zabaltzeko nahian?	30
a. Bibliografia	30
b. Eranskinak	30
I: Parte hartze teknikak	31
II: Ekiterako Komunikazioarekin loturik Mugarik Gabeko artxiboan aurkitu daitekeen materialen zerrenda	51



Aitorpena - EzKomertziala - SorburuDenLanikGabe

Dokumentu hau Creative Commons lizentzia baten menpean dago. Kopiatu, banatu eta publikoki bere edukia zabaldu daiteke, beti ere bere egilea aitortu eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da beratu aldatu, eraldatu edo lan honetatik hasita beste lan bat sortu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

I Zergatik?

Mugarik Gaben, beste erakundeetan bezala, e-mail, artikulu edo eskutitzen bat idatzi edo materialen bat argitaratzean, gure izaera eta pentsaera ere transmititzen dugu. Hori dela eta, eta gure helburua gizarte zuzenago baten alde egitea dela kontutan izanik, zabaltzen ditugun materialak eta burutzen ditugun prozesuak ezin dira ustekabeko ekintzetan oinarritu behar. Beraz, hedatzen dugun informazio guztia azterketa sakon baten ondorioa izan behar delakoan gaude.

Ilido beretik, gure materialak egiterakoan genero azterketa bat egitea derrigorrezkoa dela uste dugu, batik bat azterketa hori gure pentsaeran eta guztiontzako giza garapen jasangarria eraikitzerako orduan ezinbestekoa dela uste dugulako. Beraz, eta egungo genero harremanetan agertzen diren bidegabekeriak aldatu nahi baditugu, derrigorrezkoa bilakatuko zaigu orain arte komunikatzeko erabili izan dugun modua aldatzea.

Honekin lotuta, eta gaur egungo mundu honetan

Ekitatearen alde egin nahi badugu, gure komunikazio moduak sakonki aztertu beharko ditugu.

hedabideek betetzen duten papera ikusita, gure eskuetan dauden komunikazio tresnak, erakunde bezala eraiki nahi dugun errealitatea eta beharrezkoak diren aldaketan oinarriak bideratzera zuzendu nahi ditugu. Horretarako gure komunikazioari beste ikuspegi bat eman beharko diogu, genero-arloan gizonezkoen eta emakumezkoen aldeko ekitatea bultzatu eta, funtsean, errealitate desberdin bat zabaltzeko.

Beraz, gure eguneroko lanan erabiltzen ditugun irudietan, edukietan, hizkuntzan nahiz metodologietan gero eta genero hurbiltasun handiagoa lortu ezker, orduan eta genero aldetik komunikabide zuzenagoak lortuko ditugulakoan gaude.

2 Zertarako?

Hemen aurkezten dugun honako gidaren helburu nagusia Mugarik Gabeko kanpoko zein barneko komunikazioa antolatzea da.

Barne-materialak erakundeko pertsonen artean komunikatzeko erabiltzen ditugunak dira eta kanpo-materialak berriz, beste erakunde edo gizarte berarekin komunikatzeko erabiltzen ditugunak dira. Hona hemen adierazitakoaren zenbait adibide:

Barne materialak:

- Bidaia txostenak
- Ekintzen ebaluaketak
- Bazkideentzako gutunak
- Plangintza estrategikoak
- Mezu elektronikoak
- Batzar agiriak
- Protokoloak
- Batzarretako gai-zerrendak
- ...

Kanpo Materialak:

- Memoriak
- Koadernotxoak
- Egutegiak
- Korrespondentzia
- Web-orria
- Argitalpenak
- Plotterak
- Kartelak
- ...

3 Nola?

Bere garrantzia eta aplikatzeko erraztasuna dela eta, orain arte komunikatzeko dauden baliabideen artean gehien jorratu duguna hizkuntza (hizkera eta idazkera mailetan) izan da. Baina horrek ez du esan nahi atal honetan baliabide honen inguruan bakarrik arituko garenik.

‘Irudi batek hamaika hitz baino gehiago balio duela’ dio esaera zaharrak eta horregatik genero ikuspegia materialak sortzeko eta aukeratzeko erabiltzen ditugun irudietara ere heldu behar dela uste dugu. Beraz, honako gida honek **irudiak** erabiltzerakoan genero ikuspegiarekin bat etortzeko proposamen batzuk emango dizkigu. **Edukiak** kontuan hartzea ere ezinbestekoa da, bai analisirako eta baita prosamenak egiteko.

Azkenik, gida honetan **metodologiei** ere leku bat egin nahi izan diegu, bai material-didaktikoetan erabiltzekoak, bai lan nahiz erabakiak hartzeko eremuetan aplikatu beharrekoak. Ildotik horretatik, Mugarik Gaben betidanik esan dugu lortutako emaitzek gauzak nola egin diren moduarekin harreman zuzena dutela.

- A) Hizkuntza
- B) Irudiak
- C) Edukiak
 - a) Errealitatearen analisisa
 - b) Zergatiak
 - c) Proposamenak - aukerak
- D) Metodologiak

Horrela, zure eskuetan jartzen dugun honako gida hau 4 ataletan bananduta aurkezten da: hizkuntza, irudiak, edukiak eta metodologiak. Atal bakoitzean, gaiaren azalpenarekin batera, eta edukien ulermena erraztu ahal izateko, adibide batzuk erabili ditugu.

Kasu guztietan, **ekintzaren aldeko** jarrera bat sortu nahi izan dugula argi utzi nahi dugu, eta hau lortzeko egindako analisiak proposamen desberdinekin agertuko dira.

A. Hizkuntza

Hizkuntza, errealitatea nola ulertzen dugun adierazteko modua da; edo bestera esanda: errealitatearen inguruan dugun ikuspegia antolatzearekin batera bakoitzaren interpretazioa gizarteratzeko baliabidea da.

Hizkuntzaren bidez pentsatu, informazioa zabaldu, ezagutza hedatu eta gizartea sortu eta antolatzen dugu. 'Hizkuntza burua eta giza jokabideen artean sortutako eremu sinbolikoa da'. Beraz, hizkuntza pentsaera antolatzearen prozesuaren oinarria dela uste badugu orduan komunikatzerakoan egiten dugu erabilera kontutan hartzea ezinbestekoa da, hau da, **hizkuntzaren erabilera ez sexista** egitea. Hemen, erabilera sexistetan jauzi ez gaitzeen gauza pare bat kontutan hartu beharko ditugu: 1. Batzutan erabilitako hitzek esanahi sexista izango dutela eta 2. Beste askotan, sexismoan jaustea ala ez jaustearen aldea pertsonen egiten dugun hizkuntzaren erabileraren arabera egongo dela.

'Izena badu, bada'. Orduan aipatzen ez dena, ez dela existitzen eta gehiegi aipatzen dena existitzen den bakarra pentsatzera eraman gaitzke. Beraz, emakumezkoak aipatzen ez baditugu, tamalez hedabideetan gertatzen oi den bezala, orduan existitzen ez direla eta protagonismoa gizonezkoen eskuetan

dagoen errealitate baten ideia zabalduko dugu. Adibide honek hizkuntzaren eta bere erabileraren garrantziaz ohartaraztea du helburu.

Androzentrismoa gizonezkoak gauza guztien neurria eta errealitatearen mui-na direla baieztatu nahian, gizonezkoak giza-erreferentziaz hartu eta emakumezkoak menpekotzat jotzen dituen teoria da. Hedabideekin lotuta, nahiz eta euskararen kasua gaztelaniarekin konparatuta maila desberdinean kokatu, androzentrismoaren akats nagusia gizon-emakumeak biltzerakoan gizonezkoei erreferentzia subjektua bihurtzea eta emakumezkoak baztertu eta desagertaraztea izango da.



Bestalde, **sexismoa** pertsonen sexuaren arabera katalogatzearekin batera sexu bakoitzari balore, gaitasun eta rol desberdinak ematen dion teoria da. Horrela emakumezkoek egiten dutena garrantzi gabekotzat hartuko da eta gizonezkoek egiten dutena eta zabaltzen dituzten baloreak kontutan hartuko diren bakarrak izango dira. Hemen, sexismoaren akats nagusiak sexu bakoitzari tratamendu desberdina ematea, (emakumezkoak txikiagotuz), ezaugarri desberdinak jartzea, (batez ere emakumezkoek estetikarekin lotuz eta bestalde

gizonezkoek argitasunarekin) eta emakumezkoei kulturalki ezartzen zaizkien rolak mespretxatzea izango dira nagusiki.

Itxuraz, euskara ia genero gabeko hizkuntza dela esan dezakegu, baina horrek ez du genero aldetik ekitatez jantzitako hizkuntza dela esan nahi. Esan bezala, egia da gaztelerarekin alderatuta beste neurri bateko arazoan aurrean aurkitzen garela, baina kontutan izan behar dugu sexismoa hizkuntzaren gainean egiten dugun erabilerarekin lotura estua izango duela, batez ere hizkuntzaren bidez errealitatea proiektatu eta itxura ematen diogulako. Beraz, hizkuntza aldazen badugu orduan pentsaera eta ekintzak garatzeko beste erak sustatu ahal izango ditugu, hain zuzen ere gaur egun dugun hizkuntza androzentrikoa eta sexista alboratu eta ekitatea lantzeko hizkuntza berri bat eraikiz.

Jarraian, hizkuntza ez sexista erraztu dezaketen adibide eta proposamen zehatz batzuk zabalduko ditugu. Bai jarritako adibideak eta bai proposamenak bere **testuinguruaren** barruan aztertu eta ulertu behar direla argi uztea garrantzitsua da. Hori dela eta, eta ematen diren proposamenak lotuz, helburua testua genero arloan zuzena izateaz gain, irakurtzeko erraza eta gramatikalki egokia izatea da.

Jarraian egiten ditugun proposamenak euskara batuaren erabileran oinarritutakoak dira, euskarak baditu ordea bere aberastasunaren adibide diren euskalki anitz eta zentzu horretan ezin dugu ahaztu euskalki horietan idatzi edo mintzaterakoan hartu beharreko neurriak desberdinak izango liratekeela.

PROPOSAMENAK	ERABILI BEHARREKOAK	BAZTERTU BEHARREKOAK
Generikoak erabiliz (adina, lan-bidea, gizarte taldeak...)	Alkatea	Alkate - Alkatesa
Beste batzutan, pertsonaren sexua adierazi nahi badugu...	Alkate andrea	Alkatea
Aurreko proposamenaren aurkakoa badirudi ere, testuinguruaren arabera egoera batzutan emakumezkoak eta gizonzkoak bereziki nabarmendu nahi izatea gerta dakiguke. Horrela emakumezkoen lana espresuki ikustaraztea posiblea egingo zaigu, batez ere gizonzkoen lana izan ohi diren esparru eta ekintzetan.	Mercedes lantegiko emakumezkoak zein gizonzkoak EEEa zela eta greban gogotsu aritu izan ziren.	Mercedes lantegiko langileak EEEa dela eta greban gogotsu aritu izan ziren
Komeni denean, eta ekintzarekin lotuta generoa adierazi nahi izatekotan, hitz elkartuetan '-gizon' edo '-emakume' atzizkiak erabiltzeko aukera emanez.	Enpresariak Enpresa-emakumeak Enpresa gizon-emakumeak	Enpresa-gizonak
Esaldia antolatzeko era eta ordena boterearen ezaugarria denean...	Emakumeak eta gizonak Neskak eta mutilak...	Gizonak eta emakumeak Mutilak eta neskek...

PROPOSAMENAK	ERABILI BEHARREKOAK	BAZTERTU BEHARREKOAK
Generoa duten hitzak baztertu eta hitz-bateratzaileak erabiliz.	Seme-alabek Gurasoek Aita-amak	Semeek Aitek
Kontuz itzultzerakoan. Gaztelatik euskaratzerakoan maskulinoa bateratzaile modura agertu ez dadin	Han venido los padres de Miren: Mirenen gurasoak etorri dira	Mirenen aitak etorri egin dira.
Asimetria baztertu: Emakumez-koei nahiz gizonezkoiei tratu bera emanez.	Lan-taldea Alaitz Iñurrategik eta Tasio Albizuk osatzen dute.	Lan-taldea Alaitz eta Tasio Albizuk osatzen dute



Hika erabiltzeko proposamena:

Euskara, aurrean dugun hizketakideari sor diogun begirunearen eta hurbiltasunaren arabera Berorika, Zuka eta Hika mailetan sailkatu daiteke. Azkenengo kasu honetan, aditza desberdina izango da solaskidea emakumezkoa edo gizonzkoa bada.

Hika oso leku gutxitan eta batez ere berbetan aritzeko erabili izan da, baina gure hizkuntzaren aniztasuna eta bizitasunaren ezaugarria dela kontutan eduki behar dugu eta horregatik mantentzeko ahaleginak egin behar direnaren alde agertzen gara.

Egia da gure eguneroko lanean Zuka erabiltzen dugula, baina Hika forma bai testuei bai hizkerari hurbiltasuna eman diezaiokeela kontutan izan behar dugu. Sexua eta generoa gauza bera ez direla argi utzita, berba egiterakoan edo idazterakoan aurrean dugun solaskidearen generoa argi dugunean hika edo zuka erabiltzea pertsonarekiko dugun hurbiltasunaren arabera uzten da.

Baina hitz egiterakoan eta alboan dugun solaskidearen generoa argi ez dagoenean, orduan kasu hauetan Zuka erabiltzearen aldekoak agertzen gara. Idazterakoan berriz, kasu hauen aurrean Hika forma erabili dezakegu eta aditzean, generoa adierazten duen partikula agertzen bada, bi moduetara jarri beharko genuke. Hau posible egiteko eta irakurtzeko ulergarritasuna mantentzen dugula, generoa desberdintzen dituen partikulek k/n edo a/na marratxoen bidez, parentesien artean kokatuz edo aditza esateko era biak jarri genitzake.

Kartelak egiterakoan berriz mezua zuzena eta ulergarri izateko, genero bietarako balio duten aditz formak erabiltzea gomendatzen dira.

Hona hemen azaldutakoaren adibide batzuk:

PROPOSAMENAK	ERABILI BEHARREKOAK	BAZTERTU BEHARREKOAK
Aurrean dugun solaskidearen generoa argi dugunean.	<ul style="list-style-type: none"> - Bileran egi biribila esan duk. - Bileran egi biribila esan dun. - Bileran egi biribila esan duzu. 	Hirurak ontzat hartuko ditugu
Berba egiterakoan generoa argi ez dagoenean	<ul style="list-style-type: none"> - Nola duzu izena? 	<ul style="list-style-type: none"> - Nola duk izena? - Nola dun izena?
Idazterakoan generoa argi ez dagoenean.	<ul style="list-style-type: none"> - Nola dun/k izena? - Liburua eman zio(n)at? - Hik egin ahal dun/duk? 	<ul style="list-style-type: none"> - Nola dun izena? - Liburua eman zioat? - Hik egin ahal dun?
Kartelak egiterakoan	<ul style="list-style-type: none"> - Erabakia heuk hartu: Ez utzi besteen esku!!! - Heuk eraiki: Hire generoa, hirea!!! - Hator manifestaldira!!! 	<ul style="list-style-type: none"> Erabakia heuk hartu: Ez ezak besteen esku utzi!!! Heuk eraiki: Hire generoa hirea dun/duk!!!



B. Irudiak

Idatzitako komunikazioak bezala, irudiek ere generoarekiko dugun jarrera adierazten digute. Gainera kontutan izan behar dugu informazio-sistemen artean begietatik sartzen diren lehen datuak irudiak direla. Beraz, gai hau jorratzeko gizartea nola den eta ze gizarte mota eraiki nahi dugun arteko oreka bat izan behar dela uste dugu. Horregatik, gida honetan emakumezko eta gizonezkoen arteko ekitatea hedatzen duten irudiak zabaltzeko apustua egiten badugu ere, ezin dugu beste motatako aniztasuna baztertu. Beraz, erabili beharreko irudiek sexu, herri, adin, famili-eredu edo gaitasun desberdinak dituzten pertsonen adierazle bilakatu behar dira. Era berean irudiak, hizkuntza idatzian esan dugun bezala, aplikatuko diren testuinguruen barnean kokatzea beharrezkoa da.

Horrela, emakumezkoen nahiz gizonezkoen kulturalki atxikitako rolak aldatzen saiatuko gara. Beraz, irudien aldetik genero arteko orekara eramango gaituen modu berri bat eraikitzeko, orainarte irudiak egiteko eta aukeratzeko jarraitu ditugun prozesuak aldatu beharko ditugu. Horretarako, eta emakumezkoen irudiei lotuta, emakumeen gorputza erabiltzeko joerak baztertu eta hauen barneko aniztasuna adierazi beharko dugu (adina, jatorria, aukera sexualak, lana... eta abar). Era berean, emakumezkoen etxe-eremutatik kanpo eta enpleguarekin zerikusirik duten guneetan, (batez ere orain arte gizonezkoen-lanak hartu izandako guneetan, erantzukizuneko eta aintzatespeneko lanpostutan), aurkeztu beharko ditugu. Gizonezkoen berriz, orain arte deskribatu izan dieten profesionaltasuna, harrotasuna, emakumeenganako begirada sexuala, osasuntsu eta horrelako 'pribilegioak' baztertu beharko ditugu. Horretarako, hauekiko izan

ditugun begiratzeko formak aldatu eta orain arte baztertu izan diren eremuetara eraman beharko ditugu, hain zuzen ere eremu pribatuetara, etxeko lanetara, zainketetara eta tradizionalki estu erlazionaturik izan ez dituzten hainbat eremuetan kokatuz: maitasuna, laguntasuna, sentikortasuna eta abar.

Gai honen helburua transmititu nahi ditugun **balore** sorta azpimarratzea da, eta horretarako gizona eta emakumezkoen ikuspuntua parekatzearekin konformatzen ez garenez, eta aldaketa sakona izan dadila bermatzeko, gaur egun 'ontzat' eta 'txartzat' hartzen diren baloreen oinarriak aztertu beharko ditugu:

- Gizarte zuzenago batetara eramango gaituzten baloreak ontzat hartuz: horrela, bai emakumezkoak eta baigizonezkoak botere eremuetan kokatzea ez letorke bat ideia honekin (nahiz eta genero aldetik ekitateruntz hurbildu), hain zuzen ere zabaltzea nahi dugun botere motarekin bat ez datorrelako. Beraz, proposatzen dugun ideia genero ekitatea mantentzearekin batera, mailakatutako boterearen irudiarekin apurtzea izango da, bere ordez parekotasunean oinarritutako boterearen ideia jarri. Bertan, adibidez, lan-taldeak eredu hartu eta emakumeak koordinatzaile-lanetan azaltzen dituzten irudiak jartzea gomendatzen dira.
- Orain arte egindako erabilera dela eta, txartzat hartu diren gaiak edo baloreak berriro aztertuz: adibidez boterea batzea (agintea) txartzat hartzen dugu, baina boterea neurritz hartzea berriz gauza positibotzat daukagu.
- Gizona eta emakumezkoak berdinean baloratzea: adibidez, esparruaren arabera, nahiz eta aitatasun baimena hartu duen gizon baten kasua nabarmendu nahi izatea, neurriko jarrera bat izan behar dugu bera 'heroi' bezala agertu ez dadin eta emakumezkoa, kasu berean, gauza normaltzat hartzeko arrisku handia legoke. Genero aldaketaren alde

bultza egiteko kasuaren arabera hobea zer den kontutan hartu beharko dugu beti.

Era berean, ezin dugu ahaztu **haurrak irudietan** nola agertu izan diren. Gaur egun publizitateak haurtzarotik sexu-rolak errepikatzen ditu, horrexegatik garrantzitsua da rol horien aldaketa, emakumezkoen eta gizonetzkoen ekitaterako proposatutako gomendioak jarraituz, irudien bidez zaintzea.



Azkenik, ekitateari lotuta, gogora ditzagun nabarmendu behar genituzkeen harreman batzuk:

○ **Gizon-emakumeen arteko harremanak:** Sexu-erakarpena alde batera utzi eta berdintasunean oinarritutako erak zabalduz. Horretarako beste balore batzuei, (lan-eremuetako parekotasunari, adiskidetasunari, elkarrenganako laguntzari, elkartasunari...), garrantzia eman beharko diegu.

- **Emakumezkoen arteko harremanak:** Emakumezkoen arteko lehiaren ideia alboratu eta bai lan-eremuetan bai aisialdi guneetan zintzotasunean, begirunean, elkarlaguntzan, arretan eta emakumeen arteko laguntzan oinarritutako baloreak zabalduz.
- **Gizonezkoen arteko harremanak:** Gizonezkoek adiskidetasun eta gizartean 'emakumezkoen' lana hartu izan ohi diren ekintzak betetzen irudikatu sexu-tartekatzerara izandako joera baztertuz.

Gure materialei dagokien kasu honetan, emandako adibideak bai barruan landutako irudietara (marrazkietara edo argazkietara) bai kanpoan hartutako irudietara egokitu beharko dira. Irudien erabilera betidanik hurrei zuzendutako materialarekin lotu egin da, baina gogora dezagun errealitatea asmatzeko duen erraztasuna argazkiarena baino handiagoa dela eta horregatik gure ekintza aldatzaile honetan leku garrantzitsua gordeko zaio.

Era berean programetan erabiltzen ditugun irudiak (Power Point-an adibidez) zaindu beharko genituzke, bertan gizonezkoak nagusi agertu eta etnia, lan eta klase estereotipoak errepikatzen direlako.

Irudiei lotuta, hauexek dira komunikazioa garatzeko zenbait proposamen.

	BAI	EZ
<p>Genero rol tradizionalak irudikatzeari uko eginez.</p>		

	BAI	EZ
<p>Genero rol tradizionalak irudikatzeari uko eginez.</p>		
		
<p>Emakumezkoak eta euren aldarrikapenak ikustaraziz: Emakumezkoei euren ikuspuntutik azaltzeko aukera eman.</p>		
		

	BAI	EZ
<p>Kopuruen arteko oreka kontutan hartuz.</p>		
		
<p>Gizonezko eta emakumezkoak irudietan agertzerakoan hauen handiera, planoa eta tokia kontutan hartuz.</p>		
		

	BAI	EZ
Gizonezko eta emakumezkoak irudietan agertzerakoan hauen handiera , planoa eta tokia kontutan hartuz.		
Etnia, kolore, kultura, herri eta sexu aniztasuna eta desberdintasuna isladatuz.		
		
		

	BAI	EZ
Emakumezkoak subjetu aktibo bezala aurkeztuz		
		
		
		

Gida osoan bezala, baina espreski atal honetan, hainbat erakunde eta hedabidei eskertu nahi genieke adibideak argitzeko erabili izan ditugun irudiak sartzeko baimena emateagatik.

C. Edukiak

Atal honetan, Mugarik Gaben gauzatzen ditugun komunikazioen edukiak garatzerakoan kontutan hartu beharreko hainbat gauzetaz mintzatuko gara.

Hori dela eta, eta sortu beharreko materialetan alde hauek sartzeko asmoz, (material motara eta helburura egokituz), honako atala 'Errealitatearen Analisia', 'Oinarriak' eta 'Proposamenak-aukerak' sailetan banandu dugu.

a) Errealitatearen analisia

Hizkuntzaren gaia jorratzerakoan ikusi dugun bezala, androzentrismoak gizonetzkoen ikuspuntua nagusitzen du errealitatea bere orokortasunean ulertzeko bide bakarra izango balitz bezala, emakumezkoen papera eta ekarpenak alboratuz. Bai Androzentrismoak bai sexismoak emakumezkoak gizonetzkoen menpe edukitzearekin batera, errealitatearen gaineko irudi alderdikoia eta faltsua osatzeko ahalmena daukate.

Horregatik, errealitatearen gainean eraikitako irudi objektiboago bat ematen duten edukien alde egitea funtsezkoa iruditzen zaigu. Beti, edozein motatako gaia lantzen dugula ere, emakumezko eta gizonetzkoen arteko egoera eta emakumezkoek jasaten duten gizonetikiko menpekotasuna salatzen dituzten egoerak begi-bistan azaltzeko ahaleginak eginez.

Beti, genero ikuspuntua betaurreko giza jantzita izan behar dugu, batez ere edonolako informazioa zabaltzerakoan edo testuingururen bat aztertzerakoan.

Genero analisia lana, baliabideak, aisialdia, aberastasuna, kultura eta boterea lortzeko dituzten aukera desberdinak kontutan izanda, emakumezkoek eta gizonezkoek gizartean dauzkaten funtzioen azterketa sistematikoa da. Beraz, honek generoen aldeko desberdintasuna ugaltzen dituzten prozesuak eta gizarte erakundeek gizonezkoen menpekotasuna babesteko, emakumezkoek beraien lanaren ondorioz ateratako etekinetatik baztertzeko, sexu bakoitzean datzan ahalmena eta portaerak desberdin baloratzeko eta agintea nahiz baliabideak eskuratzeko aukera murrizteko erabiltzen diren logika eta estrategiak ulertzea erraztuko dizkigu.

Hauek dira kontuan hartu beharreko zenbait alde:

- Datu kuantitatiboak: Gizonezko eta emakumezkoen kopurua.
- Egoera honek sexuengan ze nolako eragina duen.
- Sexu arteko botere eta desberdintasun harremanak.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten aldarrikapenak.
- Sexuek eskuratutako lorpenak jakinaraztea. Emakumezkoek gizartean duten presentzia nagusitu, salbuespenezko eta aldikako kasu bezala hartu ez dadin. Horrek historia, politika, giza eskubideak, zientzia, teknologia eta kultura beste ikuspuntu batekin aztertzea dakar.

- Eremu horietan nabarmendu diren emakumezkoen parte-hartzea eta ekarpenak azpimarratu behar dira.
- Porrot baten aurrean emakumezkoen erruak handitzeko eta gizonezkoenak txikitzeko dagoen joera alboratu.
- Samurtasuna, errukitasuna, hunkigarritasuna, indarra, ziurtasuna, duintasuna... eta edozein motatako adierazle sexu zehatz batekin identifikatu ez izatea.
- Gure materialek adineko pertsonen, haurren, gaixoen eta ahalmen desberdinekoen zainketa baloratzea.
- Zaindariarena egiten dutenek ez ezik, zaindutako pertsonak ere jarrera aktibo bat duten ikuspuntua hedatu.
- Zenbait taldetan, berez jasaten duten bazterkeriari beste motatako bazterkeriak lotzen direnean. Batez ere emakumezkoen artean, batzutan sexuarekin lotuta etnia, talde kulturala, adina eta beste edonolako egoerak emandako nortasunaren ondorioz jasaten duten bazterkeria areagotu egiten da.
- Lanaren banaketa sexuala adierazten dituzten irudiek eta testuek baztertu eta sexuek partekatutako erantzukizun ideia zabalduz.
- Testuak lantzerakoan, aipamen bat jartzen badugu hizkuntzaren erabilera sexista egiten ez dituztenak aukeratu. Emakumezkoen duintasun handiarekin tratatu izan dituzten pertsona famatuei erreferentzia egin eta, bestelakoak erabiltzea derrigorrezkoa egiten bazaigu, orduan edukia eta agertutakoaren gainean dugun jarrera kritikoa oin-ohar baten adierazi beharko dugu.

b) Oinarriak

Dauden desberdintasunak ulertu ahal izateko desberdintasun hauen oinarriak zeintzuk diren zehazki identifikatu beharko ditugu. Baina horretarako, sexu arteko desberdintasunen zergatia azaltzeko, **daukagun eredu patriarkala eta androzentrikoa ulertzea ezinbestekoa bilakatzen da.**

Beraz, gizonezko eta emakumezkoen arteko botere desoreka ulertzeko asmoz, hauen desberdintasun nagusien oinarriak azaltzen ahalegindu beharko gara.

c) Proposamenak - aukerak

Genero ekitaterako komunikazio-gida bat egitea ez da gauza makala, eta hau lortu ahal izateko gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman zuzenagoak eraikitzeko parte - hartzearen bidea lantzea (proposamenak sortuz eta bultzatuz), oso garrantzitsua izango da.

Proposatutako alternatibak, edozein gaia jorratzen dutela ere, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desorekatutako harremanak ikuspuntu berri eta eraldatzaile batetik sortu beharko dira. Baina horretarako, eta aldaketak (hausnarketa - ekintza) proposatu ahal izateko, generoen arteko harremanak aztertzeko ikuspuntua maila guztietan (analisi -sorburuetan) txertatuta egon beharko da.



Komunikazioaren gainean proposamenak egiteko kontutan eduki beharreko alde batzuk honako hauek dira:

- Testuaren helburua gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasuna salatzea izatea.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko botere harremanak aldatzeko proposamenak egitea.
- Aldaketaren bidea jorratzerakoan, emakumezkoak subjektu aktibo bezala agertzea euren balioarekiko eta gaitasunarekiko konfiantza sortuz.
- Planteatutako proposamen berrietan emakumezkoak eta gizonezkoak barne eta parte sentitzea.
- Erakunde bezala, Mugarik Gabe genero berdintasunarekiko duen konpromisoa azaltzea.
- Irudien atalean adierazi dugun bezala, gizarte zuzenagoaren aldeko lana burutzeko gaur egun nagusi diren baloreak aldatzea funtsezkoa da eta horretarako paradigma berriztatzailearen alde egitea nahitaezkoa iruditzen zaigu.

D. Lan metodologiak

Ekintza berri bat gauzatzeko talde-lana burutuko duten pertsonak aukeratzeko ditugunean, hautaketa arrazoitutako prozesu bat jarraituta egiten dugu. Beraz, ekitateari lotuta, talde-lana hasi aurretik gure buruari egin beharreko hainbat galdera azpimarratu nahi ditugu.

Mahaiaren gainean jarri nahi ditugun galdera hauekin komunikazio bat burutu behar duten pertsonen artean zenbat emakumezko eta gizonezkoak dauden eta hauek aukeratzeko jarraitu den prozesua zein izan den jakin nahiko genuke. Horrela, material berri bat egitera koan **eginkizunak** eta **erantzukizunak** nola banandu diren ezagutzea oso garrantzitsua da. **Bakoitzak zer egiten du?, zergatik?** galdetuz eta erantzuna lanaren banaketa **sexualean** kokatuz.

Bestalde, gizonezkoek eta emakumezkoek garatzen dituzten gai motak ikusi beharko genituzke. Adibidez, **generoa eta ekitatea jorratzen dituzten pertsonak beti emakumezkoak** badirela konturatzen bagara, orduan puntu hau sakonki aztertu beharko genuke.

Horrela, kanpora laguntza bila irteten garenean, eta **gizonezkoak edo emakumezkoak izateagatik gai batzutan adituak** direla pentsatzen badugu orduan gure buruari horren zergaitia galdetu beharko genioke.



Hona hemen egin beharreko galdera zehatzen adibideak:

- Zeintzuk ari dira taldearen komunikazio edo material hori lantzen?
- Zer nolako erantzukizuna daukate parte hartzen duten pertsonak?
- Materiala prestatzeko beharrezkoak diren ekintzak eta erantzukizunak era desberdinetara baloratzen al dira? Hauek banatzeko zer nolako bidea jarraitu da?
- Ze gai mota lantzen ari da? Ba al dira «beti» emakumezkoek lantzen dituzten gaiak eta beti gizonezkoek lantzen dituztenak? Zergatik?
- Kanpotik ze nolako laguntza daukagu komunikazioan? Gizonezkoak edo emakumezkoak dira? Zergatik?
- Landu beharreko gaiaren arabera gizonezkoengana edo emakumezkoengana jotzen dugu laguntza eske? Zergatik?

Horrela banakako edo **talde-lanaren** alde egiten badugu kontutan izan beharko dugu. Ahal den guztietan talde-lanaren alde egitea proposatzen dugu, parte-hartzea, ikaste prozesua eta erakundea osatzen duten pertsonen botere hartzea errazten duelako. Baina modu honetara lan egitea erabakitzen bada, nola gauzatzen den kontutan izan behar dugu. Esaterako, kontsultatu eta parte-hartze aktiboa bultzatzen dira? Taldearen parte-hartze aktiboa bultzatu nahi badugu orduan informazio osoa eman ez ezik dinamika aproposa ere aukeratu beharko dugu.

Orokorrean, bai erakundeko lanetan bai talde-lanetan zabaltzen ditugun **jarrerak** eta taldearekiko dugun arreta oso garrantzitsuak dira. Horretarako jarrera baikorra, eraikitzailea, **begirune** handikoa eta gogotsu batekin egotea ezin-

bestekoa bilakatzen da **guztien** arteko **parte-hartzea** bultzatu eta ideiak eta proposamenak (edonork botatzen dituela ere) entzuteko.

Hemen, eguneroko erakundeko lanetan aritzerakoan lan eta erabaki guneetan sexuen arteko parte-hartze parekatuaren alde egin behar dugula gogoraraztea ez legoke txarto. Ondorengo eremu hauetan parte-hartze teknikak bultzatu ahal izateko adibide batzuetaz osatutako eranskin bat gehitzen dizuegu:

A. Bileren dinamizazioa

- sortze pentsamendua
- pentsamendu kritikoa
- pentsamendu eragilea
- pentsamendu posizionala
- pentsamendu argitaratzailea

B. Arazo eta proposamenen analisisia

Dinamiketarako materialak

Prestatutako materiala talde-lana gauzatzeko alde metodologikoren bat baldin badu, (hezuntza eta genero gida bat adibidez), proposatutako dinamikek kontuan hartu beharreko puntuak honako hauek izan beharko dira:

- Nori doa ekintza zuzenduta? Gizonezkoei, emakumezkoiei edo talde mistoei?
- Talde mistoak direnean eta jorratu beharreko gaiaren/dinamikaren arabera, jarduera sexuz sailkatzeko edo batzeko aukera ondo aztertu.
- Proposatutako dinamikak aktiboak izatea eta pertsona guztien arteko parte-hartzea sustatzea.
- Ahal denean, emakumezkoen eta gizonezkoen edo mutilen eta nesken arteko rol aldaketa sustatzen dituzten dinamikak sartu.

Proposatutako tekniken eranskina ikustea gomendatzen da.

4 Gaia zabaltzeko nahian?

A. Bibliografia

- ANTOLÍN L., “La mitad invisible. Genero en la Educación para el Desarrollo”, ACSUR-Las Segovias, Madrid, 2003.
- RINCON, Ana (Coord): “El lenguaje, más que palabras. Propuestas para un uso no sexista del lenguaje”, Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer, Bilbao, 1998.
- IRAZABAL UGALDE, Arantzazu. “Guía de Estilo en Castellano en Comunicación y Género”, Ayuntamiento de Derio, Derio (Bizkaia) 2006.
- LOPEZ DIEZ, PILAR, : “Utilización no sexista de la imagen en acciones de marketing y publicidad”, Protocolo general de utilización de la imagen de las mujeres y de los hombres. Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao, 2003.
- PEREZ DE ARMIÑO, Karlos (Coord.): “Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo”, Hegoa e Icaria, Barcelona, 2.000.
<http://dicc.hegoa.efaber.net/> Clara Murguialday: Definición de Género.
- BENGOETXEA M.,(Murgibe), “Jornada de Uso No sexista del Lenguaje”, Ayuntamiento de Bilbao, 2006.
- PASTOR N., “Berdintasunaren aldeko eskuliburua”, Portugaleteko Udala Gizarte Ongizatea.
- GAIK: “Por una utilización inclusiva y no sexista del lenguaje en ESK”. ESK, 2008.
- MUGARIK GABE: “Unificando un uso no sexista del lenguaje”, Mugarik Gabe, 2004 (no publicado).

B. Eranskinak

I. Eranskina: Parte hartze teknikak.

II. Eranskina: Ekitatean oinarritutako komunikazioarekin loturik dauden baliabide eta materialen zerrenda.

I. ERANSKINA

Parte hartzeko teknikak

(Grace Requejoren tailerren materialetatik ateratakoa, 2004)

A. BILERAK DINAMIZATZEKO TEKNIKAK

PENTSAMENDU SORTZAILEA LANTZEKO

T.1:- Ideia-jasa

Ideia-jasaren eta pentsamen sortzailearen oinarri kognitiboa juizioa bertan behera uztea da. Ideien ekoizpena eta haien balorazioa erabat banantzen dira. Ideien balorazioak (bai positiboak, bai negatiboak) mugatu egiten du ideia-ekoizpena, eta emozionalizatu egiten du lana behar baino lehenago. Eztabaida librearekin konparatuz, ideia-jasak bultzatu egiten du entzute adimentsua, gainerakoen ideiak aurrera egiteko aukera gisa ulertzen baitira, eta ez borrokan jarduteko aukera gisa. Horrez gain, ideia-jasak erraztu egiten du parte-hartzea, modu eraginkorrean gainera. Ideia-jasaren funtsa ez den arren, teknika horrek bultzatu egiten du estrukturalki taldeko kideen partehartzea. Halaber, ideiak emateko aukera ere ematen du, horretarako diskurtso bat osatzeko eta besteen eztabaidekin erkatzeko beharrik gabe (horra hor, hain zuzen ere, eztabaiden ohiko formula).

Teknika horrek “zubi-lana” egiten duela esan genezake eta, beste teknika osagarri batzuk behar dituela: hala nola garatzea, baloratzea, hautatzea, zentzua ematea...

Teknika

1. Landu beharreko gaia mugatzen da.
2. Parte hartzaileei ideiak emateko eskatzen zaie, haiek baloratu edo haiei buruz eztabaidatu gabe.
3. Ideiak arbelean idazten dira, parte-hartzaile guztien aurrean (zinta batean ere graba daitezke).

Beste aukera bat: banakako hausnarketa-une bat sortzen da, 1. eta 2. uneen artean.

Idea-jasak ordenaturik gabeko zerrenda bat sortzen du. Zer egin behar dugu zerrenda horrekin? Egin daitezkeen gauzak ez dira ideia-jasaren atalak, teknika horretatik at egiten diren jarduerak baizik. Haietako batzuek, gainera, ideien balorazioa ere egiten dute:

- Hartu eta eraman: partehartzaile bakoitzak interesgarriak iruditzen zaizkion ideiak hartuko ditu, haiek adostu edo eztabaidatu gabe.
- Baloratu gabeko ideiarene bati buruzko azalpena eskatu.
- Ideiak taldea antolatu edo sailkatu, finkatutako irizpideen arabera.
- Taldeka hautatu: interesgarrienak iruditu zaizkien ideiak adierazteko eskatuko zaie partehartzaileei. Ondoan 2 edo 3 marka dituztenak edo egokiak iruditzen zaizkigunak hautatuko dira.
- Ideien araberako taldeak egin: talde handia talde txikitik banatzea, ideiarik garrantzitsuenak garatzeko.

- Ideia-jasa ur-jauzi modura egin: ideia-jasa berriak egiten dira, hautatuko ideiak oinarri hartuta.
- Irizpide baztertzaille baten arabera hautatu: baztertzeko moduko ideiak kentzeko eskatzen zaie partehartzaileei.
- Lehentasunak finkatu: Ideiak egin beharreko lanarekiko duten garrantziaren arabera ordenatzea.
- Ideiak garatzea: euri-jasak hastapeneko ideiak sor ditzake, eta ideia horiek landu egiten daitezke, haiek osatuz, hobetuz edo operatibizatuz. Zenbait ideia maila aurreratuago batera eramatea.
- Eremu ilunak argitu.
- Ideien gainean jardun: ideiak binaka konbinatzea, zatikatzea, testuinguruz aldatzea...
- Eztabaidatu: eztabaida irekia izan daiteke (partehartzaile bakoitzak egokiak iruditzen zaizkion gauzak adieraziko ditu), baita bideratua ere (galderak eginez: zein iruditzen zaizkizue interesgarrienak? Zer-nolako loturak finka daitezke agertu diren ideien artan? Zer ideia jar daitezke zalantzan?)

T.2:- 6-3-5 Metodoa

Idea-jasaren aldaera bat da. Teknika honen bidez, ideiak sortzen dira inolako baloraziorik egin gabe baina, oraingoan, idatziz. Teknika honek ere “zubi-lana” egiten du, baina sortutako ideiak gerora landu behar dira. Idatziz egiten denez, teknika honetan alde batera uzten da jendearen aurrean hitz egiteko zenbaitek sentitzen duten errespetua.

Teknika

1. Landu beharreko kontzeptua edo gaia mugatu.
2. 6 laguneko taldeak osatu.
3. Talde txikietako pertsona bakoitzak landu beharreko gaiarekin lotutako 3 ideia idatziko ditu orri batean, bost minututan. Garrantzitsua da ideiak idazteko denbora errespetatzea eta denbora hori ideia horiei buruz pentsatzeko erabiltzea.
4. Pertsona bakoitzak bost minututan zehar 3 ideia idatzi dituenean, haiek ondoko pertsonari emango dizkio eta, 5 minututan zehar, haiek irakurri ondoren sortzen zaizkion ideia berriak idatziko ditu. Gauza bera egingo da taldeko kide guztiekin.
5. Azkenik, irakurri egingo dira sortutako ideiak irakurri egiten dira eta orri edo arbel batean jartzen dira. o pizarra para tratarlas.

T.3:- Orri garbia / Buruko mapa

Orri batean, pertsona bakoitzak banaka idazten ditu bururatzen zaizkion ideiak, inolako ordenari jarraitu gabe. Teknika honen bidez, pentsatzen duguna baino gehiago dakigula ohartzen gara, garunari pentsatzeko behar adina denbora ematen badiogu. Barruan sakabanatutako ditugun ideiak topatzeko aukera ematen digu teknika honek.

Buruko mapa aurrekoaren aldaera bat da. Burura datozkigun ideiak orriaren erditik sortzen den grafiko batean antolatzen ditugu; grafiko horretatik adarrak sortzen dira, ideiak elkarren artean lotuz

T.4:- Hipotesien berrikuspena

Teknikak ziurtzat ematen ditugun gauzetan sakontzen du, eta aldaerak bilatzen ditu. Pentsamen sortzaileak ez du inolaz ere gutxiesten hipotesien balioa eta ez du haien erabilgarritasuna baloratzen. Haiekiko alternatibak baino ez ditu bilatzen, nahiz eta batzuetan alternatiba horiek hobeak ez izan. Taldeetan, pentsamen sortzailea geldiarazi egiten da sarritan, taldeei zaila egiten baitzaie begi-bistakoak diren ideiak beste modu batera antolatzea. Teknika honen bidez, taldeak alde batera uzten du muga hori, aldi baterako bada ere.

Teknika

1. Landu beharreko kontzeptua edo gaia mugatu.
2. Hautatutako kontzeptuaren inguruan ziurtzat hartzen diren ideiak, ideia nagusiak edo hipotesiak hauteman.
3. Ideia eta hipotesi horien aldaerak eta alternatibak aztertu.
4. Sortzen diren ideien interesa eta onurak aztertu.

5. Interesgarrienak eta erabilgarrienak diren ideiak garatu eta finkatu.

Hipotesien berrikuspena erabilgarria da konponbide berriak diseinatzeko orduan, eta emaitza hobekak ematen ditu landutako arazoak oso konponbide finkoak dituenen.

T.5:- Ausazko estimuluak

Teknika horren bidez, kasualitateen agertzen dira. Arazoa beste ikuspuntu batetik ikustea eta erantzunak ere beste bide batzuetatik bilatzea du helburu. Teknika honek areagotu egiten ditu egoera jakin baten inguruan egon daitezkeen kasualitateak eta, horrela, kasualitate horietako batek lehen aurreikusten ez ziren konponbideetara eramango gaitu. Horrela, arazoak ikuspuntu berrietatik konpontzen dira.

Teknika

1. Hiztegi bat, liburu bat, aldizkari bat edo antzeko zerbaitek ireki, eta agertzen den lehen hitza hartu.
2. Hautatutako hitza landu beharreko gaiarekin lotzen duen ideiak eman.
3. Lana burutzeko erabilgarriak izan daitezkeen erantzunak, garapenak, ikuspuntua edo elementuak bildu.

Adibidez: talde bat ariketa fisikoa sustatzeko moduak bilatzen ari da, osasuna hobetzeko helburuarekin. Horretarako, hiztegia ireki eta “zainzuri” hitza aurki

dezakete taldeko kideek: hitz hori oinarri hartuta, nekazaritza-kanpaina batean al baterako parte hartzea proposa dezakete. Hiztegian “atal” hitza aurkitzen badute, berriz, agian bururatuko zaie ez dela beharrezkoa ariketa fisikoa gorputz guztiarekin eta beti leku berdinean egitea, gorputzaren atal desberdinekin baizik; “brotxa” hitza aurkitzen badute, pentsa dezakete etxebizitzetan egin beharreko erreformek pixka bat mugiaraztera behartzen gaituztela.

T.6:- Alternatiba-mailak aldatzea

Sarritan, esku artean dugun lanaren orokortasun-maila oso murrizta izaten da eta, horrenbestez, baliagarriak izan daitezkeen erantzunak orokortasun-maila jakin horretan baino ezin ditugu aurkitu. Ez da gauza bera “norbait baztertu behar dugu” esatea edo “kostuak merkatu behar ditugu” esatea. Norbait baztertzea diogunean “Nor?” galdera datorkigu gogora; kostuak merkatzea diogunean, berriz, publizitatean egindako inbertsioa murriztea, makinaren bizialdia luzatzea edo lan-jarduera urtean astebetetz geratzea proposa dezakegu. Lan bat orokortasun-maila handiago batetik hartzen denean, areagotu egiten da konponbide kopurua. Halaber, talde batek zuzen jarduteko aukera handiagoak izango ditu balizko erantzun gehiago dituenean.

Teknika

1. Egin beharreko lana definitu.
2. Lan hori eremu zabalagoa hartzen duen beste lan batengatik ordezkatu.
3. Balizko ideiak eta konponbideak bildu, sortutako alternatiba-maila berria oinarri hartuta.

T.7:- “Etzi”-aren teknika

Teknika honen bidez, pertsona talde batek (3 eta 40 lagun bitartean) diseinatu eta deskribatu egingo du errealitatearen alderdi bat, kontuan harturik nolako nahi luketen errealitate hori izatea epe ertainean edo epe luzean. Horretarako, ez dituzte kontuan hartuko sor litezkeen berehalako zailtasunak. Ondoren, emandako erantzunak posibilitate-mailaren arabera antolatu eta eraldatu egiten dira, haien bideragarritasun-maila areagotzeko.

Teknika horrek estimulatu egiten du taldearen pentsamen sortzailea, hiru prozesu oinarri hartuta :

- 1) Lehenbiziko pauso gisa, taldeak gai bat diseinatu behar du, taldekideen ustez gaiak “nolako izan beharko lukeen” kontuan harturik. Horrela, taldearen anbizioak eta fantasiak jarriko dira agerian, errealitatearen mugak alde batera utzita. Taldeak amets egiteari ekingo dio.
- 2) “Etzi”-aren teknikak alde batera uzten ditu arazoak konpontzeko premiak sortzen dituen mugak. Arazo batek dituen berehalako zailtasunak kontuan hartu gabe lan eginez gero, desagertu egiten dira errealitate jakin bat diseinatzean sortu ohi diren oztopoak eta iragazkiak.
- 3) Kontuan hartu beharreko hirugarren alderdia diseinuaren ideia da. Taldeari deskribapen bat egiteko eskatzen zaio. Kontuan ez da nahien eta printzipioen katalogo bat osatzea, errealitate hori nolako izan beharko lukeen diseinatzea baizik.

Teknika

1. Aldatu, eraiki edo diseinatu nahi dugun errealitatearen alderdia mugatu.
2. Taldeari alderdi hori diseinatzea eskatu, kontuan harturik nolakoa nahi luketen errealitate hori izatea epe ertainean edo epe luzean (10, 20 edo 30 urte).
3. Pertsona bakoitzak bere kabuz pentsatuko ditu gaiari buruzko ideia solteak, nork bere irudimenari oztoporik jarri gabe.
4. Ideia guztiak mahai gainean jarri, eta arbelean idatzi.
5. Ideia berriak sortu, aurrekoak kontuan harturik (ideiak elkartuz, uztartuz, garatuz, alderantzikatuz...).
6. Ideiak sailkatu, haiek gauzatzeko dauden aukeren arabera:
 - Oraintxe egin daitekeena
 - Orain egin daitekeena, baldin eta baldintza jakin batzuk ematen badira.
 - Oraingoz egin ezin daitezkeenak, baina talde-lanerako jomuga gisa balio dutenak.

PENTSAMENU KRITIKOA LANTZEKO

T.8:- Une kritikoa

Aurretik definitutako gai baten inguruko kritikak egitea du helburu teknika honek, konponbidea kontuan hartu gabe eta emozio negatiborik nahastu gabe. Teknika hau lagungarria da pentsamen kritikoa pizteko, pentsamen horrek berekin dakartzan arazoak baztertuz edo murriztuz. Pentsamen kritikoa gaizki edo oker dauden gauzak agerian uzten dituen pentsamena da. Kexak, barru-husteak, atsekabe generikoaren adierazpenak, kritika positiboak eta abar ez dira pentsamen kritikoa sartzen... Kritika balio handikoa da. Egindako lanak hobetzeko balio du.

Une kritikoak kritikaren balio teknikoa eta haren osagai emozionala bereizteko balio du. Edozeinek adieraz dezake bere ustez zer den okerra, ahula edo osagabea. Kritikaren unea da, inork ez du zertan minduta sentitu. Une honetan, kritikak ez du konstruktiboa izan behar. Geroago etorriko da hori.

Teknika

1. Kritikatu den gaia definitu.
2. Taldeari kritika zehatzak egiteko eskatu (akatsak, hutsuneak, ahulguneak, arriskuak, desabantailak); inork ezingo du bere burua defendatu edo justifikatu (ez da beharrezkoa mundu guztia kritikekin ados egotea).
3. Kritikak idatzi.
4. Norberaren kontrol-eremuan daudenak eta norberaren kontrol-eremutik kanpo daudenak bereizi.

T.9:- Kritika lausoen azalpena

Kritika orokorrek ez digute uzten gauzak hobetzeko erabakiak hartzen. “Nor bere zortzikoan dabil”, “inork ez du lanik egin nahi”... Halako kritikek ez digute arazoa ondo kokatzen uzten. Kritika lausoa argitzea oso lagungarria da taldearen ekoizpen teknikoa hobetzeko.

Teknika

1. Lausoa edo orokorregia den kritika bat argitzeko galdera bat egin: “Zer esan nahi duzu horrekin?”.

PENTSAMEN OPERATIBOA LANTZEKO

T.10:- I x G (Ideia x Garapena)

Sortu berriak diren ideiek edo erdizka osatutako ideiek behar bezala ondu behar dute. Goizegi heltzen badiegu, bertan behera gera daitezke, ez berez ideia txarrak zirelako, behar adina heldu ez direlako baizik. Hauxe da, hain zuzen ere, I x G teknikaren helburua: ideiei baldintza egokiak ematea, behar bezala gara daitezen.

Teknika

Taldeak denbora jakin bat hartuko du (10'-45') aurretik aukeratutako ideia bat edo gehiago positiboki garatzeko (bistaratu, operatibizatu, optimizatu, bideragarri bihurtu), aldeztatik haiei emandako bideragarritasuna edo balioa kontuan hartu gabe.

PENTSAMEN POSIZIONALA LANTZEKO

T.I I:- Sentsorea

Sarritan, taldeak jarrera jakin bat hartu behar du proiektuen, ideien edo gertaeren aurrean. Balorazio eta posizio subjektiboak agerian geratzen dira askotan taldearen mugimenduetan. Sentsorearen teknika lagungarria da iritzi eta posizio subjektiboak taldearen pentsamenean sartzeko. Pentsamen posizionala emozioen, lehentasunen, intuizioen eta sentimenduen pentsamena da.

Pentsamen posizionalak eginkizun edo funtzio jakinik, desagertu egiten da inolako kontrolik gabe. Ez dago egon beharko lukeen lekuan eta, agertu behar ez lukeen uneetan, berriz, agerian geratzen da.

Pentsamen hori ez da justifikatu behar. Alde batera utzi behar dira intuizio hutsak baino ez diren horien inguruko justifikazioak edo sasi-arrazonamenduak; horrela, alferrikako denbora asko aurreztuko dugu lan-saioetan. Ez dugu ahaztu behar badirela zenbait egoera justifikaziorik gabe hobe konpontzen direnak; pentsamen posizionalaren bidez, errazago izango da egoera horiei aurre egitea.

Pentsamen horrek ongi onartzen ditu azalpen lausoak. Gai baten aldeko edo kontrako iritzia eman dezakegu, antolatutako diskurtso baten beharrik gabe.

Teknika

1. Zer gairen aurrean posizionatu behar dugun mugatu (ideiak, alternatibak, aldatetak, proposamenak...).
2. Pertsona bakoitzak bere posizioa adierazten du, hura justifikatzeko beharrik gabe ea besteekin eztabaidan jardun behar gabe.

Teknika hori lan jakin bat egin nahi duen edozein talderekin aplika daiteke, baita gauzak nondik joango diren jakiteko arazo bat konpondu nahi duen edozein talderekin ere. Lan zail bati ekitean, lagungarria izan daiteke zein diren aldez aurretik gauzarik garrantzitsuenak taldearentzat. Halaber, teknika hau erabakiak hartzeko ere erabil daiteke, esku artean ditugun aukerekin eta talde-pentsamena zehazteko beste pentsamenekin lan egin ondoren.

PENTSAMEN ADIERAZGARRIA LANTZEKO

T.12:- :- Orburua

Teknika honen bidez, kontzeptu, proiektu edo erakunde jakin batean funtsezkoak ez diren alderdi guztiak kentzen dira, betiere haren identitatea deuseztatu gabe.

Teknika

1. Aztertu beharreko gaia edo kontzeptua zehaztu.
2. Kontzeptua edo gaia osatzen duten alderdiak deskribatu.
3. Funtsezkoa ez den guztiak kendu, kontzeptu edo gai horren funtsa aldatu gabe.
4. Definizio edo deskribapen bat eratu, funtsezkoa soilik erabiliz.

Teknika hori lagungarria da gertaerak biluzteko, zentzua argitzeko, larrialdi- unetan funtsezkoak diren gauzak lantzeko, errealitatea aztertzeko, ebaluazioak egiteko edo plan estrategikoak diseinatzeko.

T.13:- Azalpenik onena

Teknika honen helburua da ahalik eta azalpenik onena aurkitzea fenomeno bat, jokabide bat, kontzeptu bat, proposamen bat edo kontakizun bat ulertzeko. Talde baten jokabidea azaltzeko erabil daiteke, baita gertakari bat interpretatzeko edo diskurtso baten mamia bilatzeko.

Teknika

1. Aztertu beharreko gaia definitu edo mugatu.
2. Azalpen esanguratsuak (hipotesiak) proposatu.
3. Azalpenak konparatu eta elkarren artean lehian jarri: Zeinek eskaintzen ditu argibide gehiago? Zeinek azaltzen ditu aztertutako gaiaren alderdi gehiago?
4. Atzean geratzen diren azalpenak baztertu: hipotesi berriak sar daitezke.
5. Hautatutako azalpena osatu eta zehaztu.

Teknika hori lagungarria da zerbaiten zentzua antzemateko, zergatiak aztertzeko eta proposamenak aztertzeko.

B.-ARAZOAK EDO PROPOSAMENAK AZTERTZEKO TEKNIKAK

T.14:- AMIA matrizea

Teknika horren bidez, egoera, azaroa edo proiektua aztertzen da, lau irizpide oinarri hartuta: bi barrura begira (Ahulguneak eta Indarguneak) eta beste bi, berriz, kanpora begira (Mehatxuak eta Aukerak). Ondoren, taldeak aztertu egiten du ahulgunean nola zuzendu, indarguneei nola eutsi, mehatxuak aukera nola bihurtu eta abar.

T.15:- Zergatien zuhaitza

Metodo horren helburua da arazo baten oinarri diren zergatiek eta ondorioak elkarren artean lotzea. Arazo baten eragile izan daitezkeen alderdi guztiak kontuan hartzea da teknika honen xede nagusia.

Teknika

1. Arazoa hartu eta orri zuri baten eskuinaldean jarri.
 2. 1. mailan arazoaren zergatiak jarri.
 3. 2. mailan, 1. mailako zergati bakoitzaren zergatiak jarri.
 4. Lotu zergatiak gezienez bidez.
 5. Zergatien kategoriak bilatu: politikak, prozedurak, pertsonalak, sozialak, taldekoak...
 6. Zergatirik ohikoenak hartu eta sakonago aztertu. Une honetan, ZNNNN teknika erabil daiteke.
- Zergatiak bilatzeko, pentsamen sortzailea lantzeko teknikak erabil daitezke.

T.16:- ZNNNN

Tresna honen helburua gai bat oinarriko galdera hauen bidez aztertzea da:

- ZER? NORK? NON? NOIZ? NOLA?

Galdera horiek hauetako batzuekin konbina daitezke:

-Zergatik? Zenbat? Zertarako?

Horrela, sakonago aztertuko dugu arazoa.

C.- PARTE-HARTZEA ERRAZTEKO BESTE TEKNIKA BATZUK

T.17:- Phillips 6/6

Talde handi bat 6 lagunez osatutako taldetan banatzen da, gai jakin bat 6 minutuz eztabaidatzeko. Teknika honek arrakasta handia izaten du, lehenetakoia baita talde handien parte-hartzea eta lana hobetzeko taldeen zatitzea proposatzen duena. Gainera, zatitze hori erraz egin daiteke, oso epealdi laburrerako baita.

Teknika

1. Aztertu beharreko gaia zehatz formulatu.
2. 6 lagunez osatutako taldeak osatu eta moderatzaile bat eta idazkari bat aukeratu.
3. Taldeek 6 minutuz (edo gehiago) egin behar dute lan.
4. Talde bakoitzak bere lana azalduko du

Phillips 6/6 teknikaren funtsa taldea zatitzea da. Taldeak handiegiak direnean, taldekideak elkarren artean oso desberdinak direnean edo taldearen barruan zenbait dinamika gertatzen direnean (lehia, protagonismoa, denborarik eza...),

zaila egiten da pertsona guztien parte-hartzea bermatzea. Tamaina txikituz, parte-hartzea areagotu egiten da.

Teknika hori azken emaitza lortzeko taldekide gehienen parte-hartzea beharrezkoa denean erabiltzen da.

T.18:- Aurretiko hausnarketa

Taldeari minutu batzuk ematen zaizkio taldekide bakoitzak landu beharreko gaiaren inguruko zenbait ideia banaka hausnar ditzan. Epe horretan isilik egon behar dute, eta norberak idatzi egiten ditu bere ideiak.

Teknika

1. Landu beharreko gaia zehatz formulatu.
2. Pertsona bakoitzak minutu batzuek pentsatu (4-7 minutu) eta idatzi egingo ditu bere ideiak.
3. Pertsona bakoitzak idatzitakoa azalduko du.

T.19:- Txutxu-mutxua

Teknika horrek erraztu egiten du parte-hartzea. Taldea bi lagunez osatutako taldetan banatzen da denbora labur batez, eta bikote bakoitzak gaia landuko du. Teknika hau oso erraz egin daiteke, ez baita beharrezkoa inor jaikitzea, ez aulkirik mugitzea... Bikoteak norberak ondoan duenarekin osatutako dira.

Teknika horren helburua taldeko kide guztien parte-hartzea bermatzea da. Oso emaitza desberdinak lortuko ditugu gaia talde handian aztertzen badugu edo bikoteka aztertzen badugu: izan ere, lehen aukeran pertsona gutxi batzuek soilik parte hartuko dute, eta bestean, berriz, guztiek.

Teknika

Taldeak bikoteka aztertuko du minutu gutxi batzuetan gai jakin bat.

Txutxu-mutxuaren ostean, pertsona gehiago egoten dira prest eztabaida batean parte hartzeko.

Teknika hau lagungarria da gai baten sarrera egiteko, ikerketak egiteko, esku-hartzeen kalitatea hobetzeko edo erreferentzia pertsonalak sartzeko. Ez da ezinbestekoa ideiak talde handian agertzea.

T.20:- Eztabaida librea

Teknika honek elkarrekintza librea bultzatzen du: modu esplizituan arautu gabeko elkarrekintza, hain zuzen. Hauxe da elkarrekintzaren ohiko modua. Teknika hori oso erabilgarria da talde txikietan, zer nahi duten ondo dakitenetan eta ikuspegi orokor bat dutenetan; halaber, teknika egokia da giro ona duen taldea lantzeko. Gainerako kasuetan, teknika hau erraz hondatzen da.

Zenbait taldetan, eztabaida askea gutxi batzuen esku egoen da. Pertsona horiek beren gain hartzen dute arrea guztia, besteek baino gehiago hitz egiten dutelako, altuago hitz egiten dutelako, haserre daudelako, gogotsuak direlako...

Eztabaida honda ez dadin, beharrezkoa da:

- Eztabaidatu beharreko gaia eta horren helburua ondo zehaztea
- Banakako ikuspegia alde batera uztea eta talde-ikuspegia indartzea
- Hitza taldeko kide guztiei ematea
- Eztabaidaren helburua gogoraraztea eta gaia bideratzea

T.21:- Gurpila

Teknika honen bidez, pertsona guztiak ematen dute beren iritsia, aurrez finkatutako ordena bati jarraiki. Pertsona guztien iritzia behar denean erabiltzen da. Erreduantziarekin edo halakorik gabe erabil daiteke. Interesgarria da aurretiko hausnarketa egitea, lehenbiziko iritziek gehiegizko eragina izan ez dezaten.

Teknika hau lagungarria da bateratze-lana egiteko aurretiko hausnarketaren, txutxu-mutxu baten edo talde txikietan egindako lan baten ondoren. Halaber, informazioa emateko, ikerketak eta bozketak egiteko, zerbait egin baino lehen taldearen iritzia jasotzeko ere erabil daiteke teknika hori. Horrela, aratu gabeko parte-hartzearen ohiko kontzentrazioa oreka daiteke.

T.22:- Galderak

Galderen bidez, hainbat gauza egin daitezke: esaterako, gaia aldatu, alderdi bat ardaztu edo isilik daudenean hitz eginarazi. Galderak taldeak inposaketarik zuzentzeko bide egokiak dira, erantzuteko ala erantzunik ez emateko eta erantzuna hautatzeko aukera ematen baitute. Horrez gain, taldeko edozeinek egin ditzake galderak.

Neurri handi batean, galdera egiteko moduak baldintzatu egiten du eman daitezkeen erantzunen eremuan.

Taldean parte hartzeko orduan, galderak ez du horrenbesteko estimurik izaten, galderak ez baitio inolako meriturik ematen galderagileari. Iritzi harrigarri bat ematea, ideia bikaina ematea edo konponbide bat proposatzea galdetzea baino baliaerriagoa dirudi; norberaren autoestimua baino, galderek taldearen autoestimua indartzen dute. Iritziak ez bezala, galderek solaskideak behar dituzte, halabeharrez.

Galderak egiteak eta zalantzak adierazteak kezka eta, beraz, tentsioa sor dezake. Galderak ez dira erosoak izaten sarritan. Zalantzak adieraztea edo nork bere buruari galderak egitea ahultasun-zeinutzat hartzen da batzuetan.

Galdetzeko artea jakinduriaren eremuan dago; eremu horretan, galderak eta erantzunak pareko balioa dute. Askoz ere garrantzi handiagoa eman ohi zaio arazoak konpontzeko moduari haiek aurkitzeko moduari baino; hori hala izanik, jakin badakigu pertsonak, taldeak eta gizarteak egiten dituzten galderen mende egon direla beti, aurrera egin ahal izateko. Batzuetan, garrantzitsuagoa da galdera erantzuna baino.

Galdetzeko arteak hainbat gauza eskatzen ditu: galdera irekiak eta itxiak bereizten jakitea, galdera kokatzeko eremua hautatzea, kezkarekin ongi konpontzea, erantzunen zain egoten jakitea, erantzuteko gogoei eusten jakitea eta taldearen autoestimua alderantzizko apustua egitea.

II. ERANSKINA

Mugarik Gabe erakundearen artxiboaren Bidezko Komunikazioari lotutako materialen zerrenda

Hemen proposatzen dizuegu Mugarik Gaberen artxiboan gai honi buruz aurki dezakezuen bibliografia gehiago:

- BURCH Sally (koord.), “Comunicación, organización y género. Ellas tienen la palabra”, AREA DE MUJERES DE ALAI, Quito, 2009
- CORDEIRO Cristina, RODRÍGUEZ Alixe, HERRERO Amaia, RUIZ Patricia, “Libro de estilo para evitar el sexismo en los medios de comunicación”, Bilgune Feminista, Bilbao, 2004.
- DOSAL Pilar (coord.), “Medios de comunicación y género”, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao, 2004. (Euskaraz eta gaztelerez).
- EMAKUNDE, “Genero ikusmiran TBn”. Emakunde, Vitoria-Gasteiz, 2000. (Euskaraz eta gaztelerez).
- FUNDESO, “JORNADAS sobre género, desarrollo y comunicación”, Fundeso, Bilbao, azaroak 24,25 eta 26.
- GONZALEZ Sonia, “Lo que no se nombra no existe. Protocolo para una utilización no sexista del lenguaje”, LAB, 2002.
- KANARIETAKO EMAKUMEZKOAREN INSTITUTOA, “Orientaciones sobre uso no sexista del lenguaje administrativo”. Kanarietako Emakumezkoaren Institutua: Plangintza eta Programa Zerbitzua. Kanaria Handia, 2006.
- JORGE Ana, “Mujeres en los medios, mujeres de los medios. Imagen y presencia femenina en las televisiones públicas: Canal Sur TV”, Icaria, Bartzelona, 2004.

- LETE Ana (coord.), “Mujer Publicada, Mujer Mal Tratada. Libro de estilo para informar en los medios de comunicación sobre la mujer”. Nafarroako Gobernua: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Saila, Iruña, 2003.
- MUGARIK GABE, “Generando-Sortuz: materiales didácticos sobre los derechos de las mujeres”, Ararteko, Gasteiz, 2004.
- RINCÓN Ana (koord.), “Perspectiva de género en la comunicación e imagen corporativa”, Emakunde, Gasteiz, 2004.

Honez gain, **interneten aurki ditzazkeuzen** hurrengo **baliabideak** gomendatu nahi dizkizuegu:

Nombra en red: bereziki nabarmendu nahi dugu tresna interesgarri eta praktikoa hori:

Emakumezkoaren Institutuak «Nombra en Red» programa eskaintzen du doan bere Web orrian. Hori ordenagailuan instalatzen da beste edozein hiztegi elektronikoa bezala, eta zalantzak kontsultatzeko aukera ematen du, zure testuetan hizkuntza sexistak saihesteko *Deskargatzeko: www.migualdad.es/mujer/descarga/NombraEnRedSetup.exe*

Mugarik Gaberen web orrialdean: **Genero eta Garapenari buruzko Glorarioa**

www.mugarikgabe.org

T-incluye.org: web orrialdeetan hizkuntzaren erabilera ez sexistak errazteko ekimenak da. Beste harrimantak batzuen artean “web orrialdeen aztertzaile bat” eskaintzen du eta bere dokumentazioan erabilera ez sexisten web baliabideak aurki daitzake. Hemen deskargatu:

www.tinluye.org/recursos/documentos/documentos/Recopilatorio_de_recursos_web_sobre_lenguaje_no_sexista.pdf

Mugarik Gabe Garapenean Laguntzeko Gobernu Kanpoko Erakundea da, garapen hori herrialdeen arteko modu global eta elkarren mendekoan ulertuta. Gure lana geure ingurutik hasten dugu eta gure mugetatik haratago hedatzen giza garapen integrala, gizon eta emakumen artean eta herrialde ezberdinen artean ekitatezkoa eta iraugarria datozen belaunaldietarako.

Araba

“Itziar” Elkarteen Etxea - Zalburu plaza z/g, 01003 Gasteiz
araba@mugarikgabe.org
Tel.: 945277385 / 656708617. Faxa: 945277385

Bizkaia

Grupo Vicente Garamendi nº 5 P.B, 48006 Bilbao
bilbao@mugarikgabe.org
Tel.: 94.415.43.07. Faxa: 944166796

Gipuzkoa

Tejeria Kalea, beheka 5, 20012 Donostia
gipuzkoa@mugarikgabe.org
Tel.: 943445977 / 656708598. Faxa: 943445977

www.mugarikgabe.org